

noaua



Ziortzako kanpaldian izena emateko garaia da

**‘Tipularen sehaska kanta’
filma eskainiko dute
igandean Sutegin**



**Usurbilgo Udalak
bi etxebizitza jarriko ditu
Ukrainako errefuxiatuen esku**



errigora.eus

martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura

Oinak lurrean



Bete ezazu
despentsa
urte guztirako



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

GOLDWELL
ELUMEN

ile a p a i n d e g i



Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Albisteak iruditan

Haizea eta gandua



Haizeak zutoin baten erorketa eragin zuen Urdaigatik Igartzazabal aldera igotzeko bide zatian. Bestetik, egunotan gandua izan genuen; hauts lainoak zerua estali zuen.

Ezohiko giroa izan genuen martxoaren 15ean eta 16an. Hego haize zakarra batetik. Haize bolada gogorretako batek Pako Agudo herritarrak helarazitako ondoko argazkian (ezkerrekoan) ikus dezakezuen zutoin baten erorketa era-

gin zuen Urdaigatik Igartzazabal aldera igotzeko bide zatian.

Bestetik, egunotan gandua izan genuen; zerua estali zuen hauts lainoa. Denetariko gainazaletan gutxitan bezala arrastoa utzi zuena. Airearen kalita-

tean ere eragin zuen; Eusko Jaurlaritzak EAE-n dituen neurgailu askotan arnasten ari ginena kalitate oso txarrekoa zela ohartarazi zuten. Usurbilen eta Zubietan dituenetan esaterako, "erregularra" zela.

Laburrean

634,12 igo da intzidentzia

Otsailaren 27az geroztik, hiru asteetan bikoiztu egin da 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia, 634,12raino.

54 kasu zenbatu ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak hilabete hasieratik Usurbilen.

Udal diru laguntzak

Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak eskatzeko epea duela egun batzuk zabaldu zen. Oinarrii buruzko informazioa martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso dezakezue. Gogoan izan dirulaguntzak telematikoki eskatu behar direla.

Igandean, ordu aldaketa

Martxoko azken asteburuan ordua aldatu beharko da, udako ordutegira moldatzeko. Erlojua ordubete aurreratuko denez, beranduago helduko dira egunsentia eta ilunabarra. Martxoaren 27an igandea, goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.

noaia

Kultur Elkarte
Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinaatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Alazne Arruti

Kattalineak soberan daki, hein batean zeini eman eskerrak. Baserrian ikasi zuen, natura zeinen indartsua den. Amonak lurra jorratzen erakutsi zion bitartean ikasi zuen, jasotzeko erein egin behar izaten dela eta ez dagoela, norbere eskuakin zaindutako elikagaien parekorik. Aitonak erakutsi zion, inguruan zuen landare eta txori iheskorak ezagutzearen berezitasuna.

Ikasketa ordaindurik jaso ez zituen aitak, etxean ingeniari baten mailako tramankuluen garapenean parte hartzeko gonbita luzatzean ulertu zuen, munduan aktiboki eragin zezakeela. Eta minbiziaz goizegi galdutako amaren zientziarekiko ikuspegiak lagundu zion, inguratzen zuenaren osaera aztertu eta gustuko ikasketei ekiteko erabakia elikatzen.

Izan ere, munduan bi motatako pertsonak daude, uda sargorian Zarauzko malekoitik hondarretara jauzi egiten duen haurrari mina hartuko duela oihukatzen diotenak. Edota, hurrengo jausian, belaunek sufri ez dezaten giharrak zein modutan flexionatu behar diren azaltzen diotenak. Eta zorionez, berak belaunburuak askotan urratu ditu, baina baita indartu ere. Eta horri esker eraiki du egun soinean darman guztia. Ikasi du beregan bizitzen. Gudu-zelaiak kanporatu eta eguneroko gerletan gogor eusten. Ikusi du ingurua

Kattalin II



“Aitonak erakutsi zion, inguruan zuen landare eta txori iheskorak ezagutzearen berezitasuna”.

ALAZNE ARRUTI

**“Hurbildu orduko,
Alizia bailitzan zuloatik
behera erortzen sentitu da”**

berarekin aldatzen. Aurrerape-
nak ez direla beti teknologian
oinarritzen eta sinpletasunak
zenbateko garrantzia duen.

Gustuko duen kamiseta bat,
kalean ibiltzetik, etxeko tra-
pu izatera noiz igarotzen den
ez dakien emakume honek,
egungo munduak, munduratu
zenekoaren tankerarik ez due-
la esan dezake harro. Gaztetan
gorputzetik zehar tenk luza-
tzen utzitako ileekin bake-ituna
sinatu edota bizkarreko mina
eragiten zion bularretakoa ge-
hiago ez janztea erabaki zue-
neko askapen sentsazioak bizi
berritu egin izan du. Inoiz tek-
nologiaren menpekotasunaz
pentsatzen hastearekin batera,
konparazioak zoramenaren neu-
rria ezartzen zuela konprenitu
zuelako.

Eta orain ikusi ditzake hau-
rrak lehen pipa azal eta txiklez
josten zituzten bankuetan aze-
narioak gogotsuki jaten. Sagar

gorriei beldur gabe hozka egiten
eta irensten duten oro nondik
datorren ezagutzen. Pantailak
birziklatu eta karta-joko berriak
asmatzen. Kale bazterretan
idazten, irakurtzen, kantatzen,
margotzen, bizitzen. Edozein
gorputzetan hasten diren ile
matazak errespetuz tratatzen.
Genero eraikuntzak urtzen. Bel-
durrik gabe lokatza zapaldu eta
eskuak lohitzten. Eguzki plakez
osatutako teilatuetan sortzen
den elektrizitatea ez alferrik
galtzen. Behi eta arrainak maila
berean humanizatzen. Eta
norberaren ongizatea kaltetzen
duen orori aurre egiteko tresnak
garatzen.

Baina gaurkoan, ambulato-
rioan hasi den erizain berriak
100 urteak aise beteko dituela
esanagatik, benetan sasoi ona
mantentzen duela errepikatua-
gatik, bakarrik etorri dela eta
haurrik munduratu ez ote duen
pentsatzen duen berberari, tatua-
jez jositako eta ilez soildutako
beso sendoak luzatuta, eskuak
gogor heldu dizkio bizitzari bel-
durrik ez diola erantzuteko.

Hainbestetan galdu duen osa-

kidetzako txartela jaso eta ate-
rantz abiatu da sarreran lotuta
utzi duen bizikleta elektrikorak
zuzen. Arrasera moztutako
eta 67 urtetan lagun izan duen
ile laburra igurtzi eta kaskoa
jantzi du buruan. Bidegorri-
rantz ekin dio norabiderik
gabe. Harik eta bularrean pisu
astun bat sentitu duen arte.
Hanka-pilota indartsuetatik
gora, hotzikara bat sentitu du
bizkar hezurreraino. Eta oina
lurrean jartzearekin batera,
guztia birak ematen hasi da
etenik gabe. Oasi baten erdian
dagoenaren sentsazioa buru-
tik ezin kenduta kalean aurki-
tutako lehen konpostagailura
hurbildu da atsedean hartzera.
Tapa zabalik du eta ixten has-
tean, norbaitek hondakinak
hustu eta gainerakoarekin
irabiatzea ahaztu duela ikusi
du. Beraz, oraindik zorabioa
soinean, irabiagailu metalikoa
hartu eta amaitu gabeko lanari
ekin dio.

Hurbildu orduko ordea, Ali-
zia bailitzan zuloatik behera
erortzen sentitu da. Laranja
azalak, arrautza oskolak eta
lasto xerloak aurpegitik ken-
du eta urik gabeko itsaso
lehor baterantz erortzen ari
dela ohartu da atzera itzule-
rarik gabe. Eta danba! Izerdiz
hezututako ohe batean esnatu
da arnasestuka, segundo er-
diz bihotza geratu zaion gor-
putz indargabe batean iltza-
tuta. 2022ko martxoaren 20a
dela dio, pultsazio biziagiak
dituela abisatzen ari zaion
esku muturreko adimenduak.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Errigoraren produktuak eskatzeko epea martxoaren 30ean amaituko da

Errigorak abian du beste urte batez, 'Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura' izeneko kanpaina, Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktu goxo askoekin, "euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan".

Eskaera handiak egiteko aukera duzue. "Urtean behin, urte guztirako", produktuak eskuratzea. Arroza, pasta, barazki-kontserbak eta olio bidoiak dituzue aukeran. 12 unitateka eskuratu ahalko dituzue. Ordainketari lotutako ohartxo bat. "Ordainketa txartel bidez eginez gero, 100 eurotik gorako ordainketak bi zatitan egiteko aukera izango duzu (erdia martxoan eta bigarren zatia apirilean). Hala egiten ez baduzu, dena batera ordainduko duzu, eskudirutan, produktuak jasotzean", Errigorratik argitu dutenez.

"Jarri zure aletxo"

Asteotan eskatutakoa jasotzeko 200 bat banaketa gune ditu Errigorak; Usurbilen NOAUA! Kultur Elkartearen egoitza. Eskaerak online egiterakoan, puntu hau hautatzeko aukera duzue. Produktuak berriz, maiatzaren 10etik 13ra jaso



Eskaerak orain egin behar dira. Produktuak maiatzaren 10eko astean iritsiko dira.

ESKAERAK EGITEKO GARAIA

"Arroza, pasta, barazki-kontserbak eta olio bidoiak dituzue aukeran"

ahalko dituzue NOAUA!-k Bordaberri 3 kalean duen egoitzan.

Eskertza

'Oinak lurrean' aldarria hautatu du Errigorak abiarazi berri duen kanpainarako. "Azken urteetan Errigorarekin bat egin duten milaka herritarren hautuei esker pausu sendoak ematen ari gara Nafarroako baratzetan, oinak lurrean eta emeki, bestelako ekoizpen eta banaketa-ereduak ohiko bihurtzeko bidean. Lur-eremu berriak jarri ditugu bestelako ereduaren esku,

kanpotik ekartzen genituen produktuen ekoizpena gurean berreskuratzen lagundu dugu, hainbat ekoizleri ekologikora trantsizioa egiteko bultzada eta babesa eman diogu eta euskarari olio-errotu eta kontserba-etxeetako atak zabaldu dizkiogu".

Nola egin dezaket eskaera?

- Epea: martxoaren 30era arte.
- Tokia: NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan edo online errigora.eus atarian.
- Aukeran dituzuen produktuak: Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, barazki-kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak.
- Banaketa: maiatzak 10-13.

Informazio gehiago:

errigora.eus



Ziortzako

kanpaldian izena

emateko garaia da

Ziortza gazte Elkarteak hasi da udako kanpaldia antolatzen. Urtero legez, kanpaldiak bi txanda izango ditu:

- 1. txanda (DBH3-DBH4): uztailaren 5etik 16ra.
- 2. txanda (DBH1-DBH2): uztailaren 16tik 26ra.

"Aurre izen-ematea aste honetan bertan irekiko dugu: hilaren 23tik apirilaren 8ra arte egongo da zabalik (bi egunak barne)", Ziortzatik aditzera eman dutenez.

Galdetegi bat bete behar da

Aurre izen-ematea egiteko "galdetegi bat sortu dugu, zeina gurasoen artean zabalduko dugun korreo bidez. Guraso berriren bat baldin badago edo asteazkenean ez badu interesa duen gurasoren batek mezua jaso, ziortzakanpaldia@gmail.com helbidera korreo bat bidali beharko digute. Guk galdetegira sartzeko esteka bidaliko diegu erantzun gisa", argitu dute Ziortzako kideek.

Usurbilgo jaiak antolatzen jarraitzeko bilera

Bigarren saioa, martxoaren 28an astelehena arratsaldeko 18:30ean Potxoenean. Usurbilgo jaiak antolatzen segitzeko bigarren bilera. Ohiko festa eredu berreskuratzea erabaki zuen Jai Batzordeak martxoaren 2ko lehen saioan.

Ekainaren 29tik uztailaren 3ra

Jaiak, aurtengoan, ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko dira.



Martxoaren 28an astelehena, arratsaldeko 18:30ean batuko dira Potxoenean.

Eskola Kirolaz,

"Aktibatzen"

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren inguruan "kirol politikak modu zabal eta inklusibo batean garatu ahal izateko" Usurbilgo Udalak herri eragileekin batera abian duen "Aktibatzen" izeneko prozesuaren baitan, bigarren bilera irekia deitu dute martxoaren 24rako 18:00etan Potxoenean.

Oraingoan, Eskola Kirola hartuko dute ahotan.

Paloma Huguet: “Nirekin lan egiten duten pertsona batzuk Nobel Saria irabazteko hautagaiak dira”

Ikasketek Alemaniako Göttingen hirira eraman zuten Paloma Huguet usurbildarra. Neurozientzialaria da bera, eta jada bi urte eta erdi daramatza atzerrian bizitzen. Alemaniako bizipenak partekatu nahi izan ditu NOAUA!rekin.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Alemaniara?

Paloma Huguet: Doktoretza tesia egitera etorri nintzen hona eta horretan jarraitzen dut. Neurozientzialaria naiz ni, biologomolekularra zehatzago esanda. Ikerketa egiten ari naiz medikamentu berriak sortzeko eta aplikazio kimikoak sortzeko. Burmuinean dauzkagun neuronak aztertzen ditut eta euren artean nola komunikatzen diren. Neuronek elkarri hitz egiten diete eta modu horretan burmuina koordinatu egiten da, eta hortik gorputzera pasatzen da informazio hori. Elektrizitate bidez egiten da prozesu hau, eta nik hori aztertzen dut, neuronen arteko Elektrizitatea. Ez hori bakarrik, doktoretza tesiak egiterakoan ikasi ere egin behar da. Zer dakigun eta zer ez dakigun ikusita, ikerketa lan bat egin behar da. Doktoretza tesia egitean, azken finean, ikasle eta langile gara aldi berean.

Euskal Herrian egin dituzu gaintzeko ikasketak. Nolatan joan zara Alemaniara doktoretza egitera?



Paloma Huguet neurozientzialaria da eta Alemaniako Göttingen hirian bizi da.

PALOMA HUGUET

“Jada bi urte eta erdi daramatzat Alemanian, eta beste hiru edo lau egin beharko ditut hemen gutxienez”

Unibertsitate ikasketak amaitzen ari nintzela, GRALa egiteko neurozientzietako laborategi batean aritu nintzen lanean eta konturatu nintzen horretatik bizi nahi nuela nik. Begira aritu nintzen eta ikusi nuen

Europako masterrik onenetariko bat hemen zegoela Göttingen. Unibertsitateak ere izugarrizko ospea du, eta eskaera bidali nien masterrean sartzeko eta baiezkoa eman zidaten. Izugarrizko aukera izan zen niretzat, bizitzan behin gertatzen diren horietakoa. Jada bi urte eta erdi daramatzat bertan, eta beste hiru edo lau egin beharko ditut hemen gutxienez.

Gustura zabilta Alemanian?

Oso gustura. Gainera, Alemanian zientzia lantzeko aukera

ederrak daude, inbertsio handiak egiten dituzte eta garrantzia ere izugarria ematen diote. Göttingeni zientziaren hiri ere esaten diote. Bertatik pasatu dira Nobel Saria irabazi duten hainbat zientzialari eta egongo dira etorriko direnak ere. Nirekin lan egiten duten pertsona batzuk Nobel Saria irabazteko hautagaiak dira. Zientzia egiteko giro aparta dago eta aukera pila bat ari zaizkit suertatzen zientzialaritzan.

Alemanak oso hotzak omen dira. Hala uste duzu zuk ere?

Hala da, bai. Harremantzerako garaian ez dira oso irekiak. Hiri hau zientziaren hiri izaki, biztanle gehienak ez gara bertakoak, baizik eta munduko edozein txokotakoak. Jendea zientziagatik etortzen da, eta beraz, aleman gutxi ezagutzen ditut. Gutxi ezagutzen ditut, eta gainera, gehiegi harremanetzeko ohiturarik ez dutenez, gutxi ibiltzen naiz haiekin.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat ezagutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzinoa@noaua.eus

“Behin hona iritsita lagunak egin beharra daukazu”

NOAUA! Alemanekin ez zara harremantzen. Askotan, kanpora joatean jendeak ohitura du gazteleraz mintzo den jendearekin elkartzeko. Zure kasua ere hala da?

Paloma Huguet: Arraroa egin daiteke, baina bi espainiar baino ez ditut ezagutzen. Iritsi nintzenezan lagunak egin beharra neukan eta gaur egun nire lagunik minenak Indiakoak dira. Peruko lagun

bat ere badut, Errusiakoak, Turkiakoak, Italiakoak edota Amerikako Estatu Batuetakoak... Denetik pixka bat. Behin hona iritsita lagunak egin beharra daukazu. Asteburuetan senide eta lagune-

kin ezin dut egon, eta gaintzekoentzat ere egoera hori bera da. Asteburuetan, beraz, jendeak kalera atera nahi du eta aisialdiaz disfrutatu, eta beraz, lagunak egin behar.

“Gottingen hiria txikia da, oso polita, eta gustura bizi naiz bertan”

NOAUA! Alemaniarrak usurbil-darrendandik oso ezberdinak direla uste duzu?

Paloma Huguet: Bai, erabat. Mundua ulertzeko modua eta orokorrean harremantzeko modua oso ezberdinak dira. Egunerokotasunean egiten ditugun planek ere ez dute zerikusirik. Oso gauza arraroak egiten dituzte hemen, nahiko kontu “frikiak”. Aurreko batean taberna batera joan nintzen lagunekin garagardotxo batzuk hartzera eta lehiaketa bat egiten ari ziren bertan. Garardoaz beteriko pitxerra hartu eta goraka besoa luzatuta nork gehiago iraungo neurtzen ari ziren; gehien irauten zuena irabazle. Nik Donostian edo Usurbil inguruan ez dut sekula horrelako ezer ikusi. Alemanak oso etxezaleak dira. Neurri batean normala ere bada hotz handia egiten duela kontuan hartuta. Mahai-jokue-tan jolastea oso gustoko dute, adibidez. Kanpoan neguan oso ohikoa da -10°C egitea, eta beraz, ez dago kanpoan denbora luzez egoterik.



Alemanian denetik, “faltan botatzen dut eguraldi argiagooa eta epelagooa”.

PALOMA HUGUET

“Groningen hiriko pisu batean bizi naiz indiar batekin. Lagun egin ginen eta batera bizitzera joatea erabaki genuen”

Ari zara hotz horretara eta eguzki ordu gutxitara ohitzen? Momentuz behintzat ez naiz ohitu, eta uste dut sekula ez naizela ohituko horretara. Faltan botatzen dut eguraldi argiagooa eta epelagooa. Gabo-

netan etxean izan nintzen eta inoizko gabonik epelenak egin ditu. Abenduaren 28an iritsi nintzen eta 20°C egiten zituen. Egia da hori ere ez dela normalena, baina eskertu nuen eguzkia eta eguzkia ikustea.

Nolako hiria da Gottingen?

Gottingen oso hiri polita da eta gustura nago bertan, oso txikia da. Donostia baino txikiagoa da. Alemaniako hirixko bat da, estilo oso alemana duena. Bertan daramatzadan

urte hauetan inguruko hirietara bidaiatzeko aukera izan dut: Hamburgo, Bremen... Doktoretza egiten ari naizenez, ikasle izaera ere badut eta hemen, garraiobide publikoa doakoa da ikasleentzat. Polonian ere izan ginen, Belgikan eta Amsterdamen ere bai.

Norekin bizi zara?

Pisu batean bizi naiz indiar batekin. Lagun egin ginen eta batera bizitzera joatea erabaki genuen. Hasieran, Alemaniara iritsi nintzenean, nire programak kontuan izan zuen atzerri-tarra nintzela gainontzeko ikasleak bezala, eta alemanik ez nuela hitz egiten ere kontuan izan zuten. Beraz, Unibertsitateak aurkitu zidan bizileku bat nire programa jarraitzen duten beste zientzialariek batera. Oso gustura egon nintzen han ere. Giro latino bikaina geneukan bertan, baina lau pertsona pisu batean egotea gehiegitxo zen niretzat. Indiako lagunak ere buruan zerabilen pisuz aldatzea eta biok batera joatea erabaki genuen.

“Interneterako konexioa munduko txarrenetarikoa da hemen”

NOAUA! Etorkizunean Alemanian geratzeko asmoa duzu?

Paloma Huguet: Zientzia egiten jarraitu nahi badut, laborategi garrantzitsuak bilatuko ditut eta bertara joango naiz. Zientziaz nazkatzen banaiz, enpresetan beti egoten da lana, dela Usurbilen, dela Donostian. Urte batzuk hemen egin beharra daukat, eta behin doktoretza amaitzean egoera pertsonala ikusi beharko dut zer egin nahi dudan erabakitzeko. Oraingoz ez dut gehiegi pentsatu gaiari buruz, hiru urte ditut

aurretik.

Gauza gehiago ere botako dituzu faltan.

Familia eta lagunak batez ere, baina baita giroa ere. Euskal Herrian beste inon edo ia inon aurki ezin daitekeen giroa dago, eta hori ere asko botatzen dut faltan. Horrez gain, txorakeria bat ematen du, baina etxean nagoenean eta kaleko elkarriketak ulertzeko gai naizela ikustea oso arraroa egiten zait, eta barregarria ere iruditzen zait. Txantxak egiteko modua ere faltan botatzen

dut, hemengo kultura umoretik ulertuta, oso ezberdina da. Batzuetan zerbait esaten dudanean, neure buruari barreragaitzen diot, baina inork gehiago ez du barrerik egiten. Argentinako lagun bat dut hemen eta aleman batzuekin elkartu ginen. Orduan, nahi gabe gurean nahiko ohikoa izan daitekeen espresio bat esan zuen nahi gabe elkarriketaren harira: “¡Qué nazi!”. Alemaniako mutila erabat zurbil geratu zen eta mila aldiz barkamena eskatu behar izan zion.

Izango dituzu gisa horretako kontakizun gehiago ere.

Alemania teknologia arloan puntako herrialdea da. Bai behintzat European. Hala ere, wifi eta Interneterako konexioa munduko txarrenetarikoak dira. Garai batean, kableak mundu osoan kobrezkoak ziren, eta gerora abiadura hobea lortzeko herrialde gehienek aldatu egin zituzten, baina alemaniarrek ez. Ez dakit oso ondo zein den hori egiteko arrazoia, baina oso oso konexio txarra daukate. Bizitzaren kontraesanak, badakizu.

Bideetako lanek hainbat gorabehera eragin dituzte

Usurbilgo bide sareari lotutako pare bat ohar. Batetik, N-634 errepideari dagokionez, amaitu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak Troia eta Txikierdi artean bide ertzeko babes-horma berrietzeko lanak. Troia inguruko bigarren faseari ekin zioten martxoaren 17an eta ilara luzeak eragin zituen berriz. Eta kexuak, bai gidariak baita Troia auzuneko bizilagunenak ere, bertara sartzeko, herri guneraino joan beharra dutela ohartaraziz. Udaletik adierazi dutenez, “Aldundiarekin harremanetan gaude, arazoa konpontzeko aukerak aztertzen”.

Troiako pasabideko erabiltzaileen kexua

“Hau lotsagarria da”, zioen Jontxu Martinezek martxoaren 17an idatzitako txio batean. Albiste hau ilustratzen duen argazkia



“Hau lotsagarria da”, zioen Jontxu Martinez Zarrabeitiak martxoaren 17an idatzitako txio batean. Troiako pasabidea erabiltzen duenetako bat da. Udalaren aldetik erantzun egokia jaso duela dio, “Aldundiaren aldetik ez bezala”.

UGARTONDO

“Garraiolariak hasitako greba mugagabea tarteko, hornigai faltagatik asfaltatze eta margotze lanak hasi ezinean dabilza Ugartondon”

ere berak egina da. “Egun osoan ondo ibili diren 3 semaforo ken-

du eta auzokideoi etxeko sarrera itxi. Etxera joateko herrira buelta egin behar dugu, baita Troia inguruan lan egiten dutenek ere. Berriz ere, zentrotik kanpora bizi garenak ahaztuta”.

Txio horri erantzunez, eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela gogorarazi zion Udalak: “hasieratik eskatu dio Aldundiari Troiako irteera ber-

matzeko, baina, azkenean, ixtea erabaki du, udalaren irizpideen kontra. Dena den, berriz ireki dezaten ahaleginetan ari gara”.

Atzerapenak Ugartondoko asfaltatzean

Iragan astean hastekoak zizuten bestalde, Ugartondoko urbanizazio berria inguratzen duen bidearen asfaltatze eta margotze lanak. Garraiolariak hasitako greba mugagabea tarteko ordea, hornigai faltagatik lanok hasi ezinean dabilzala ohartarazi du Usurbilgo Udalak. “Lanak atzeratu egingo dira, egoera konpondu bitartean”. Aldizkari hau eskuartean duzunerako lanak hasiko balituzte, gogoan izan; Punta-pax kaletik Kalezarrera Haur Eskola parean orain arte itxita zegoen bide zatitik igo beharko da. Kalezarretik jaisteko aldiz, Belmonte kalea, auzunea bera zeharkatu beharko da.

Komunitatearen zereginaz hausnartzen

Usurbilgo zaintza ekosistema berrian komunitateak izan dezakeen zereginaz hausnartzeko bilera irekia deitu zuten herritarrekin martxoaren 16an Potxoenean. Gogoan izan, diagnosis landu ostean, inplementaziorako bide-orrria diseinatzeko hasiak dira. Horretarako lau lan talde osatu asmo dituzte; horietako bat herritarrekin.



Udal ordezkariak eta herritarrek Potxoenean batu ziren martxoaren 16an.

200 langabetu baino gutxiago

Langabetu kopuruak beherantz egin du orohar otsailan, bai Usurbilen, Buruntzaldean eta Gipuzkoan. Usurbilen 206tik 197ra, 9 langabetu gutxiago; Buruntzaldean 3.089tik 3.038ra, 51 langabetu gutxiago; eta Gipuzkoan 30.863tik 30.604ra, 259 langabetu gutxiago.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ERAMATEKO!!!

• EGUNEKO MENUA
 • KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA • JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

NOAUA! Txiki

Emakume baserritarra eta eskertza

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna ospatu dugu. Izar eta Auritzen amonak etorri dira eskolara. Baserriko gazzak kontatu dizkigute. Baratzta, baserria, eskola eta arropari buruz hitz egin digute.

Gustura egon gara beraiei entzuten eta beraiek ere oso gustura egon direla esan digute. Hain gustura egon gara, bazkaltzera ere berandu iritsi garela!

Mezu hau aprobetxatuz, gure proiektuan lagundu dizkuzuen guztioi eskerririk asko esan nahi dizuegu.



“Amona Mertxe, amona Dolo, aitona Dioni, aitona Miguel, Inaxio eta Jaione, Iñaki eta Amaia eskerririk asko gure baratzta martxan jartzen laguntzeagatik”.

Amona Mertxe, amona Dolo, aitona Dioni, aitona Miguel, Inaxio eta Jaione, Iñaki eta Amaia eskerririk asko gure baratzta martxan jartzen laguntzeagatik.

Aginagako ikasleak, irakasleak

Zendoiaiko Mertxe Aizpurua Zeberio zendu da

Jaiotetxe ondoan ateratakoa da albiste honi atxikitako ondoko argazkia. Zendoia ondoko garai bateko Correos-eko eraikinaren atarian. NOAUA! Kultur Elkartearen lehen urteetako estreinako egoitza izan zen. Eta hantxe zen lerrootako protagonista, proiektu honen sorreran buru-belarri lanean. Zutik duzue erdialdean, Mertxe Aizpurua Zendoia. Martxoaren 18an zendu zen 96 urte zituela.

1925ean jaio zen, Kale Nagusiko Zendoian, “oraindik kale-baserria zen garaian. 5 anai-arrebaren artean gazteena, Zendoiaiko taberna bere familiak eramaten zuen, eta Mertxeri ere umetatik tokatu zitzaion tabernako lanetan aritzea. Barraren atzetik herriko hainbat pertsonaia eta bizipen ezagutu ditu”, oroitzen du Euskal Herriko hizkerak eta



Zutik duzue erdialdean, Mertxe Aizpurua Zendoia.

EKINTZAILEA

“NOAUA!-ren sorreran parte hartu zuen eta baita Usurbilgo odol emaileen elkartearen ere”

ahozko ondarea biltzen duen ahotsak.eus atariak. Mertxeren ahotsak bizirik dirau hain zuzen, izen bereko egitasmoan parte hartu baitzuen. Hainbat

bizipen, istorio entzun ditzakezue Aizpuruaren ahotik aipatu web orrialde horretan.

Ia 100 urteko ibilbide luzean, NOAUA! K.E.ren sorreran parte hartu zuen, baita aktiboki ere besteak beste, Usurbilgo odol emaileen elkartearen ere. Sortzaileetako bat izan zen eta ondo gogoan dute egunotan bilgune honetan Mertxek eginitako ahalegina.

‘Bostehun eta zutik’ ekimenaren aurkezpena

‘Bostehun eta zutik’ Euskal Herriko gazte martxa iragarri du Ernaik apirilaren 14tik 17ra: Zugarramurdi, Erratzu eta Elizondo lotuko ditu.

Ostiral honetan, 19:00etan Aitzaga parean

Ostiral honetan, martxoaren 25, arratsaldeko 19:00etan hasita Aitzaga parean ekimen honen herri mailako aurkezpena. Ekitaldia, herriko musikarien kontzertuak eta afari-merienda iragarri ditu Usurbilgo Ernaik.

Autobusetako gidarien aurkako erasoak salatu ditu LAB sindikatuak

Haserre adierazi du LAB sindikatuak ohar bidez, autobus gidariak pairatzen ari diren erasoengatik. Azkena, martxoaren 12an. Andoain Donostiarekin lotzen duen gaueko autobus zerbitzuan istiluak izan ziren eta gidariak Ertzaintzari deitu behar izan zion. Onartezintzat jotzen du sindikatu abertzaleak langileok pairatzen ari diren egoera. “Ezin dugu normaltatu eman, asteburuetan bereziki, langileak beldurrez eta ezinegenez lanera joan beharra”.

LAB sindikatutik diotenez, “denak gara langileak. Gure artean babestu eta zaindu beharrean, gure artean erasotzen bagara ez goaz ongi. Langileen arteko elkartasunak berebiziko garrantzia du garai hauetan, bereziki baita parrandan ere”. Gertatzen ari denaren ardura erabiltzaileei baina Foru Aldundia nahiz autobusetako enpresei ere egotzen die LAB-ek: “zerbitzua modu seguru batean eman dadin hartu behar diren neurriak ez dituzte hartzen”.

“Joxe Mari Furundarena Begiristain, izan zinela gara”

Aginagako hilerria, memoria historikoa berreskuratu eta omenaldi eremuan bilakatu zuen martxoaren 19an Usurbil 1936 elkarteak. Herri bilguneari izena ematen dion 1936ko gerran faxistek fusilatu zuten Joxe Mari Furundarena Begiristaini gorazarre egin nahi izan zioten bere hilobian. Bere hilobian oroigarri bat jarri zioten, aurresku, lore eskaintza, erreztaldi eta hainbat kideren hitzen artean. “Joxe Mari Furundarena presente dugu, eta ekitaldixoa hau Usurbilek eta Aginagak egiten dioten aitortza da”, Usurbil 1936 elkartetik adierazi dutenez. Aitortza, “egiaren, justiziaren eta erreparazioaren bidetik”.

Hitzordu horrekin, elkarteak sortu zutenetik eskuartearen izan duten erronketako bati heldu nahi izan dio Usurbil 1936 elkarteak; “omenaldi xumeen bidez herriko fusilatuak gogora ekartzea, euren bizitzak eta oroimena desager ez daitezten”. Ez Furundarena ezta gerra haren ondorioak sufritu zituzten gainerakoenak.



Joxe Mari Furundarena Begiristaini gorazarre egin zioten aurreko larunbatean, Aginagako hilerrian.

OMENALDIAK

**Usurbil 1936 elkarteak
“omenaldi xumeen bidez
herriko fusilatuak gogora
ekarri nahi ditu,
euren bizitzak
eta oroimena desagertu
ez daitezten”**

“Ezin ditugu ahaztu gainerako fusilatuak eta bereziki gure he-

rrikoak. Haietako gehienak ez dakigu non dauden, beraien gorpuzkinek desagertuak jarraitzen dute”.

Iraileko herri omenaldian nabarmendu zituzten ezagunak zituztenak; Furundarena-rekin batera, Kosme Yaguez, Joxe Galarmendi, Romana Zubiria, Bautista Aginaga, Jose Heredero eta Patxi Aizpurua. Eta gehiago. “Horiek dira dakizkigunak momentuz baina

auskalo gehiago ez ote diren. Usurbil 1936 elkarteak jarraituko du beraien konpromisoa eta eskuzabaltasuna zabaltzen eta gogoratzen”.

Herrikideekin batera, “gaurko ekitaldia, memoria guneen berreskurapenaren bidetik doa” eta ez da azkena izango. “Etorriko dira omenaldi eta ekitaldi gehiago, hori da gure xedea eta horretan jarraituko dugu”.

“Ez da egon inoiz ahaztua baina bai hor ezkutuan gordea”

Usurbil 1936 elkarteak Usurbilgo Udalarekin batera antolatutako hitzorduarekiko esker ona adierazi zuten Aginagako hilerriara joandako senideek. “Esker bereziak Usurbil 1936 elkarteari, posible egin duzuelako garai horretan gertatutakoak gogora ekartzea”.

Osaba Joxe Marik familian barruan utzitako arrastoa azaldu zuen bere ilobetako batek, Mariaje Furundarena; oroimenean beti bizirik izan dutela. “Ez da egon inoiz ahaztua baina bai hor ezkutuan gordea”. Beti presente, baina “ahots isilez, aipatu ezinez, hitzak berak erakarriko

balu bezala tamaina handiko minaren bizipena”.

Gai tabua

Belaunaldiz belaunaldi transmititzeraino. “Hurrengo belaunaldiko umeak ginela gure jakinmin inozentea asetu nahian galdezka hasten ginen orduko mozten ziguten. Gero ez hain ume ginenean isilarazten gintuzten bi hitz erantzunda eta laster konturatu ginen ezin genuela galdetu ere egin. Gai hori tabua zela, min eta izu handia zegoela gertakizun horren inguruan”. Horregatik ez dakite askorik osabari buruz, baina isiltasuna hausteko

urratsa eman dute. “Gaur egun oraindik min handia eragiten du baina aipa daiteke gizartearen ere orain, duela urte batzuk gaiari tiraka hasi eta han hementika agertzen joan direlako lekukotza garrantzitsuak”. Eta ispilu lana egin diela adierazi zuen Marijek. “Eskerrak soka horretatik tiraka hasi eta jarraitu duzuenoi”.

Justizia eske

Omenduarien senideek hitza hartu zuten omenaldian. Haiena izan zen baita Furundarena-ren hilobian jarri duten oroigarriaren estalkia kendu eta lore sorta uzteko ohorea. Joxe Ma-

riren gorpua dagoen hilobian. “Gure familiak zorte handia izan zuen gorpua berreskuratu zuelako, beste usurbildarrek ez zuten izan hori ere. Itxaropen bat izan zuten eta izan genuen, justizia. Ez dezagun ahaztu, frontetik aparteko ekintza bat izan zela, krimena, hilketa”. Eta krimen horren aurrean isildu beharra. “Anai-arrebak, hurbilekoak, justiziarik ikusi gabe joan ziren eta joango dira. Atsedean eta sosegu handia hartuko zuten justizia izan balute, baina ez dute izan. Ordaina isiltasunik zitalena izan da. Horixe daukagu, pena besterik ez”.

Memoria, bakearen aliatu

Herriko memoria historikoa berreskuratzeko beste adibide bat izan zen iragan larunbatean Aginagako hilerrian egin zutena, Usurbilgo alkatearen esanetan. “Bihur dezagun memoria gizarte kohesiorako elementu eta kolektibitate berri baterako zutarrri. Gaur Joxe Mari Furundarena zenaren hilobiaren aurrean lehen urratsak eman ditugulakoan nago”. Eta memoriaren aldeko lanketa hau goraiatu zuen. “Demokrazia eta askatasuna eraikitzen ditu memoriak, eta horrenbestez, memoria ez da bakearen etsaia, aliatura baizik”.



Joxe Mari Furundarena zenaren hilobiaren aurrean ekitaldi bat egin zen larunbatean, Usurbil 1936 elkarteak deituta.

Memoria historikoa berreskuratzeko Usurbil 1936 elkarte Udalarekin bideratzen ari den lanketa txalotu eta misregarrizat jo zuen alkateak, “gaurko eta ondorengo belaunaldiek ezagut dezaten gure herriak eta gure aurreko herri-kideek pairatutako sufrimendua, bidegabekeria eta mina”. Pertsonen memoria baina baita lekuena ere, berreskuratzearan garrantzia nabarmendu zuen alkateak. “Ezinbestekoa da gerraren izen abizenak argitara ematearekin batera, gerraren lekuak ere ezagutzera ematea. Gure herri inguruan, gure eguneroko joan etorrietarako

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Demokrazia eta askatasuna eraikitzen ditu memoriak, eta horrenbestez, memoria ez da bakearen etsaia, aliatura baizik”

toki diren horietan, gure bide bazterretan, gerrak hil zituen zenbait herritarren memoria lekuak sortzea”.

Mundu osoan baitaude memoria lekuak, eta “toki guztiek dute euren Gernika txikia,

baita Usurbilek ere. Eta horregatik da garrantzitsua, toki horiek identifikatzea, ezagutzera ematea eta gerraren ondorioak jasan eta isilarazi zituztenen memoria aitortzeko gune bihurtzea. Hemen hil zituzten toki mingarri hori askatasun demokratikoen defentsarako, bake eta bizikidetzaren balioak transmititzeko eta oroitzapeneko gune bilakatzeko”. Memoriarik gabe, “ahantzuraren oroimenerako leku, memoriarako espazio, memoria kontzientzia delako. Memoriarik gabe galduta geundekeelako,

eta berriz errepikatzeko bermerik ez genukeelako izango”.

“Gerrarik ez. Ez Ukrainan, ez inon”

Are ezinbestekoagoa da egun memoria historikoaren aldeko berreskuratze lana, Solaberrietaren esanetan, “gerra eta bonba hotsak oso gertu ditugun honetan”. Horregatik martxoaren 19ko ekitaldi hau baliatu nahi izan zuten, “Gernikaren eta gerra galdu zutenen seme-alabak garen aldetik gerrarik ez Ukrainan ez inon oihukatze”.

“Euskadi eta demokraziaren alde bizitza eman zuen”

Memoria historikoa berreskuratzearan garrantzia nabarmendu zuten udal ordezkariak 1936ko gerran faxistek eraildako Joxe Mari Furundarena Begiristain aginagarra omentzeko Aginagako hilerriko ekitaldian hitza hartu zutenen artean izan ziren, EAJ eta EH-Bilduko udal ordezkariak.

“Oroitza eta aitormena egin nahi diogu. Bere onenean gerrak betirako eraman zuen.

Euskadi eta demokraziaren alde bizitza eman zuen. Orain beraren memoria ekarri nahi dugu gurera, omenaldia eskaini eta besarkada bat eman, beraien ondorengoei eta familiarri”.

1936ko gerra garaia ekarri zuen gogora EAJ-ren ordezkari Andoni Atxegak. “EAJ-ren kidea Usurbilgo milizietan mobilizatu zen, gazte honek Euskadiren eta demokraziaren

defentsan eman behar izan zuen bere bizitza. Dena eman beharko jako, maita den askatasunari zioen Esteban Urkiaga Lauaxetak. Horixe egin zuen Joxe Mari Furundarenak”. Garai hartako Agirre lehendakariaren hitzak gogora ekarri eta hitz haiek adierazitakoa bete zuen aginagarriak, EAJ-ren esanetan. “Ez gaude inor hiltzeko prest, baina prest gaude gure bizitza galtzeko”. Bertso

bat errezitatu zioten omen-duari:

Gudari ezagun zure baitan gorrotorik / zure barrenak ez zuen sentitzen odol isurtze gogorik / amak deituta irten zenduan mendi eta ibarretara / amaren bizia zaindu behar egizko semeen erara / agur eta ohore egun handira arte.

Gerratik ihesi, bizileku berrirantz

Slava Ukraini zioen Aizpurua lantegiko autobusa izan genuen arretagune nagusi martxoaren 15ean. Osinalde industriagunera heldu zenean, barrura begiratu, eta bidaiariak agur eta txalo artean ikusi ahal izan genituen. Zorritzarrez ez ziren inguru hau ezagutzera etorritako turistak, bonba hots artetik ihesi joan behar izan zuten ama, amona, haur edota gaztetxoak. Gizonetzko gutxi. Denak, sorterria behartuta utzi behar izan dute, bizirik segi ahal izateko, atzera euren etxeetara inoiz bueltatzerik izango ote duten jakin ezinik.



Une hunkigarriak bizi izan ziren iragan astean Osinalden, Aizpurua Autobusak enpresaren egoitzan.

Usurbilen harreran zenbait ukrainar hartu badituzte ere, gehienentzat tarteko geltoki bat baino ez zen martxoaren 15ean, udalerrri honetan izan zutena. Euskal Herriko nahiz iberiar penintsulako txoko ezberdinetara joan asmo zuten. Batzuk ezagun, lagun edota senideen etxeetara. Besteak harreran hartuko dituzten familiara.

Auzolan emankorra

Ukrainako gerrak elkartasun

UKRAINARREN ETORRERA

Sorterria behartuta utzi behar izan dute, bizirik segi ahal izateko, atzera euren etxeetara inoiz bueltatzerik izango ote duten jakin ezinik

muga guztiak gainditu ditu eta. Aizpurua lantegiko autobus honek egin duen bidaiaren an-

tzera. Auzolan emankor eta bolondres sare itzel batek ahalbidetu du eta joan-etorri hau eta amaieran, ezertaz ezagutu gabe bidean partekatutakoa azaleratu zuten. Une hunkigarriak bizi izan ziren iragan astean Osinalden. Bolondres batek hala zioen; “bidaiako une gogorrena, amaierako agurra” autobusean ezagutu zuen haur bat besarkatu berritan. Negar malkoak ere ikusi ziren. Baina

aipatu moduan, esker ona eta irribarreak ere bai, bizi duten egoera gordina izan arren.

Hutsetik hasi beharko dute

Hutsetik hasi beharko dute bizimodua, arrotza zaien beste herri batean, eskuartean dituzten baliabide eskasekin. Inoiz Ukrainara itzulita ere txikizio honetatik haien iraganeko ezer zutik edo bizirik segiko ote duen jakin ezinik.

“Maletategia, goraino beteta”

Auzolan handi bati esker, Euskal Herrian eta Ukraina inguruan mobilizatu eta koordinatu den bolondres sare zabal bati esker, egoeraren larritasunak bultzatuta presaz baina egoki asko antolatuta abiatu ziren egun batzuk lehenago Usurbildik Aizpurua lantegiko autobusean. Bolondres talde batekin eta hori bai, laguntza materialaz goraino beteta. Osasun materiala garraitu zutela aipatu zioten NOAUA!ri bolondresok. Sendagaiekin batera, arropa, mantak, janaria, ukrainarrek gerratik ihesi

zekartzaten maskotentzako gauzak, haurrak eramateko motxilak... “Maletategia goraino beteta”, Ilazki Olaizola autobus gidari oiartzuarrak berri eman digunez. Eta bidaiarien eserlekuaren eremu handi bat ere elkartasun laguntzaz bete zihen.

Guztia Euskal Herrian bertan bildua. Iruñe Pinatxo beratarak lan egiten duen saltokian oroitzen zuenez, “dendan Ukrainara gindoazela iragarri nuen bi egun lehenago eta erakusleihoa laguntza material bezala bete zidaten”.

Usurbildik abiatutako elkar-

tasun bidaiaren honetako kideek “laguntzaz goraino betetako autobus eta kamioiak gurutzatu ditugu”. Goilarak eramatea ahaztu eta “gasolindegia batean goilara kaxa oso bat oparitu ziguten. Jendea oso atsegina izan da”, Iruñe kontatu digunez.

Eslovakia eta Ukraina arteko mugatik gertu, Miren Pejenauterizain bolondresak zioenez, “ordu eta erdira zegoen Kosice” hiriburuan utzi zuten haraino garraiatutako elkartasun materiala. Guztiz hunkitu zieten errealitate batekin egiten zuten topo. Errefuxiatuen kanpamen-

du nahiko handian bilakaturiko geltokia zen. Etengabe iristen zihozten gerratik ihesi sorterria utzi behar izan zutenak. “Jendea lurrean zen, eserlekuetan...”. Baina antolatutako erabatekoa zen. “Oso ondo koordinatua zegoen guztia”, dio Iruñe. Jatekoa eta edatekoa zerbitzatzen, ihesi zetozenek behar zuten bidaiarako informazioa eskaintzen, osasun zerbitzuen postua... Eta zeregin guztietarako bolondres sare zabala laguntza osoa emateko prest.

“Gogorrena, jende helduaren egoera”

Hotza pasa dute eta bidean, bat baino gehiago oinez heldu zen mugara. “Berotan lo egingo ote zuten galdetzen ziguten”, oroitzen du Irunek. “Batzuk 10 egun zeramaten dutxatu gabe, jantzitakoarekin”.

Muga zeharkatuta, kanpamendu hau lehen laguntzarako harrera izateaz gain, bidaia luzeago baten antolakuntza puntua zen baita. Tren edota autobusez bertatik beste herrialde batzuetara zihoazen. “26ko taldea hartu genuen eta gero Budapesten beste 26ko taldea”, azaldu zigun Mirenek. Gehiagok etorri nahi zuten, baina ez zen lekurik.

Bidean, askatzen

Bidaia gogor honetatik bueltan, zer nolako arrastoa utzi dien galdetu genien. “Intentsitate handikoa izan da, barneratu beharra dugu”, zioen Mirenek. “Inoiz bizitzea espero ez genuen esperientzia surrealista izan da. Ze zortedunak garen ikasi dugu, halakorik bizi ez dugulako. Meritu ikaragarria dute, bizi zan duten eta oraindik bizitzeke duten guztiagatik”.

“Aberatsenetik pobreena, ezer gabe geratu dira”

Beraientzako etxera itzule-ra bidaia izan zen, bidelagun zutenentzako herrialde berri eta ezezagun baterako joanaldia. Bidean ordea harremanak estutzeko aukera izan zuten. “Autobusera igo zirenean zuten aurpegia itzuleran zutenarekin alderatuta, guztiz ezberdina zen”, Mirenen esanetan. Bidaia hasieran tentsioa zuten “norekin joan, nola. Bidaia nolakoa zen ikusten zihoazen heinean, askatzen joan dira”. Klase sozial guztietako herritarrek egin dute zeharkaldi hau derrigortuta. “Aberatsenetik pobreena ezer gabe geratu



Euskal Herritik ere lagundu daitekeela ohartarazi digute; diru ekarpenak eginez, harreran familiak hartuta...

BOLUNTARIOEN IRITZIA

“Autobus gidariak, erizainak, itzultzaileak... Denetariko bolondresen beharrean dira. Antolatu eta anima daitezela”, diote

dira”, Iruneren esanetan.

Zailtasunik ez zaie faltako

Bizi proiektu berri baten hasieran garrantzitsutzat jotzen du, “ezagunak izatea, haiek lagun-

duko diete herrialde berrian integratzen”. Zailtasunik ez zaie eta faltako. “Denek zioten nola egin behar zuten lan egiteko”, Iruneren esanetan. “Gogorrena, jende helduaren egoera. Gazteak berriz hasi eta egokitu daitezke. Baina helduenez ez dute ezer, ze hasi behar dute, betidanik Ukrainan bizi ostean, etxe bat bilatu, laguntza bila... 75 urterekin lanean?”, Ilazkik galdetzen duenez.

Egoera horretan ere, “batzuk jantzita zeramatenarekin bakarrik eta halere irribarre

batekin, une oro eskerrak ematen”, Irunek nabarmendu duenez. Horixe izan da egoera latz honetako une baikorrene-tako bat, “bueltan baten bat irribarrez ikustea, etorkizuna argixeago ikusten zutelako”. Bere esanetan, hizkuntzak huts egin die “are gehiago konektatu ahal izateko”. Baina maitasun keinuek hitz gutxi behar dituztenez, “keinuekin eta begiradekin” komunikatu ziren. Osinalden ikusi genituen besarkadek babes hori jaso zutela argi geratu zen.

Nola lagundu

Laguntzera joan nahi duenak beraz hizkuntzak menperatzea gomendagarritzat jotzen dute, baita “pertsona irekia izatea ere. Ezer eskatuko ez dizun pertsonekin egingo duzu topo”. Autobus gidariak, erizainak, itzultzaileak... denetariko bolondresen beharrean dira. “Antolatu eta anima daitezela”, diote. Euskal Herritik ere lagundu daitekeela ohartarazi digute; diru ekarpenak eginez, harreran familiak hartuta...



“Batzuk jantzita zeramatenarekin bakarrik iritsi dira eta halere, irribarre batekin, une oro eskerrak ematen”, Irunek nabarmendu digunez.

“Egoera oso gogorrek ikusi ditugu”

Ukraina inguratzen duten herrialdeetara joan etorriak etengabeak dira asteotan, gerra hasi zenez. Helburu bikoitza duten bidaiak; gure artean bildutako laguntza errefuxiatuen gunetara garraiatu eta bueltan, handik ihesi egiteko behar larrian diren ukrainarrak ekartzeko. Polonia eta Ukraina arteko mugara bidaiatu dute DYA-ko kideek hiru furgonetetan. Tartean zen lerrootan elkarriketatu dugun Iñigo Villafafila herritarra.

NOAUA! Bidaia honek zein du abiapuntua?

Iñigo Villafafila: Duela bi aste, astearte batean Donostiatik abiatu, 30 orduko bidaia egin eta iritsi ginen asteazken eguerdian. Hara garraitutako materiala utzi, kontaktatuak zeuden 15 pertsonak hartu eta gero bidaian izan dugun une gogorrena bizi izan genuen. Kiroldegi estiloko eremu batean, ohe pila ikusten ziren, ume piloak. Bikote bat mikrofono batekin, jendea herrialde batera edo bestera eramateko eskaintzen, subasta baten modura. Jendea etsita. Euskal Herrira ekartzeko taldeko azkeneko bi kideak bertan hartu genituen.

Nondik sortu da hara joateko ideia?

DYAn bada bazkide bat, ur-



“30 orduko bidaia egin eta gero iritsi ginen Ukrainako mugara”, Iñigo Villafafila DYako kideak adierazi digunez.

IÑIGO VILLAFAFILA, DYAKO KIDEA

“Gehienbat osasun materiala garraiatu nahi genuen, janaria, arropa... Jende askok lagundu du”

teetan Txernobilgo haur bat etxean hartu duena, Joxepo Artolak Eibarko ukrainar batzuk ezagutzen zituen, heldu zitzaigun baita Irunen elkarte bat materiala biltzen ari ziren mezuak... Hara joateko deia jaso genuen DYA-ko bazkideok. Kamioian ibilitakoa naiz. Po-

loniara askotan joandakoa bolada batean. Lankide ohiekien hitz egiten nabilen laguntzerik bazegoen jakiteko kamioien bat eramanez. Bidaia hau atera zen, izena eman eta baiezkoa eman zidaten. Oporretatik lau egun hartu nituen, jende askok egin duen moduan. 30 orduz gidatu nuen. Hiru furgoneta joan ginen. Gasoiletan bakarrik 1.500 euro bakoitzak. Horri gehitu autopistako gastuak, jatea, furgonetak Polonian ibiltzeko derrigorrezkoak diren neguko gurpilik gabe ziren... Diru piloa da. Uste dut laguntzeko dagoen modu eraginkorrena

dirua ematea dela.

Zer garraitu zenuten Poloniarra?

Gehienbat osasun materiala garraiatu nahi genuen, janaria, arropa... Jende askok lagundu du, tartean Iturralde farmaziak sendagai kaxa handi batekin, Irisasikoak diru ekarpena eginenez... Mediatikoa izango delako agian, baina jendea dena ematen ari da. Sirian adibidez arazo hori egon denean, ez dugu aurpegia eman. Asko baldintzatuko du ziurrenik, jasotzen ari garen informazio zaparradak.

“Jendea lana utzi eta hara joan da laguntzera”

NOAUA! Errefuxiatuen eremu hainbatetan gainezka egin omen dute.

Iñigo Villafafila: Deskargatzeko lekuri ez zen. Harrituta zeuden. Jendea lana utzi eta hara joan da laguntzera. Arreta ikaragarri piztu zidan Menorkako bikote batek. Aurretutako lau xoxekin autokarabana alokatu eta han mugan jarriak daude, helburu batekin; bularra hartzen duten umeek txoko goxo

bat izatea. Sare sozialetan argazkiak igotzen hasi eta zerbitzua luzatzeko finantziarioa izaten ari da. Halako kasu asko daude.

Mugaraino heldu zineten zuek?

Polonia eta Ukraina arteko mugara.

Zer tamainako laguntza gunea zen?

Gune desberdin dezente daude. Aparkaleku modukoa, kar-

pa, komunak, edozein lekutan, karabanak jarrita. Kaotikoa da. Jendea etengabe etortzen, poliziak gaindituta. Hotz ikaragarria, gradu bat zero azpitik. Emakume asko ume txikiekin, umeak blokeatuta, izoztuta... Oso gogorra. Berez mugak ez daude horretarako prestatuak. Portugalgo eta Frantziako suhiltzaileak, Israelgo medikuak, Ingalaterrako jendea... ikusi genuen. Ikaragarria.

Bakarrik heldutako ukrainarrak ikusi dituzue?

Asko. Emakume bat bi alabekin, 80-85 urteko amona bat bere painueloarekin, bakarrik. Familia dezente ateratzen. Jendea ateratzen, galduta. Behin muga pasata, poztasunez ikusiz zer harreka izaten ari ziren. Muga pasa eta jendea segituan gerturatu zen zerbait beroa eskaintzera, laguntza, arropa.

“Poloniarrek harrera oso ona ari dira egiten”

NOAUA! Zer nolako premiak dituzte errefuxiatuek?

Iñigo Villafafila: Ez dakit bereziki zer, baina soberan arropa dago. Edozein bazterretan botata ikusi dugu. Ekialdean bizi den jendea da eta badakite negua zer den. Janaria ere asko dago. Falta izatekotan, antolakuntza pixka bat eta alojamendua falta zen. Poloniarrek harrera oso ona ari dira egiten.

Bidaide izan dituzuenekin hitz egiteko aukera izan zenuten?

Gurekin zetorren emakumee-tako bat bere alabarekin hiru egun lorik egin gabe. Donostian geratu zen neska bat, lehen bertara harreran etortzen zenak atentzioa asko deitu zigun gazteleraz nola hitz egiten duen. Hark zioenez, 29 ordu pasa zituen Kharkivetik mugara etortzen eta bidean denetarik ikusi zuten. Ez zela errespetatzen ez ospitalik ez ezer.

Hedabideetan ikusi eta entzundakoa bat zetorren zuek han bizi izan duzuenarekin?

Tetrikooagoa espero nuen. Etxetik seme-alabak ganbarako



“Hamarnaka peluxe eraman genituen. Hango haurrei erakutsi eta irribarrea nola ateratzen zitzairen, izugarritzko poza ematen du horrek”, azaldu digu Iñigo Villafafila DYako kideak.

IÑIGO VILLAFAFILA, DYA

“Neska batek esan zigun bidean denetarik ikusi zutela. Ez zela errespetatzen ez ospitalik, ez ezer”

hamarnaka peluxe eraman genituen. Kaxa hango haurrei

erakutsi eta irribarrea nola ateratzen zitzairen, izugarritzko poza ematen du horrek.

Bizi proiektuak txikitu zaizkien pertsonak ekarri dituzue. Neska bat etorri da adibidez, Donostiatik Valentziara joan dena gero. Karrera bukatzeko sei hilabete falta zituen. Berak

zioenez, ez naiz inor. Batzuei entzun diegu, hona etorri arren beraien herrialdea Ukraina dela aldarrikatzen eta ahal bezain pronto bueltatu nahi dutela esanez. Beste batek ezetz zioen, jada han nazkatuta daudela eta inongo lasaitasunik ez dutela ikusten biharko egunean.

“Bizitzen ari direna ikaragarria da”

NOAUA! Zer arrasto utzi dizu bidaia honek?

Iñigo Villafafila: Bizitzen ari direna ikaragarria da. Halere edozer gauza eskaini eta irribarre batekin daude.

Gerren ondorioak betikoak ordaintzen.

Hildako jendeaz gain, txikizioa erabatekoa izaten ari dela diote. Ez dira soilik azpiegitura militarrek erasotzen ari. Haiek kontatzen dutena da, dagoen erresistentziarekin, mina egitera doazela leku sentikorrenetan. Hau akaso luzatuko dela diote, handienak agintzen amaituko duela. Baina beste

batzuei entzun eta konbentzitututa daude Errusia geldiaraziko dutela. Komentatzen zuten jende dezente dagoela hemen beren lanak utzi, eta hara joan dena, formazio militarrik gabe.

Ukrainako errealitatea nola eragiten ari da Polonian?

Ahal duten guztia egiten ari dira, harrigarria da ze goxotasunez ari diren jendea hartzen. Milaka eta milaka pertsona dira egunero egunero. Logistikoki erronka ikaragarria da. Zenbat jende datorren, zenbat material ekarri, non sartu, nola moldatu...

Lagunduta ere, panorama iku-

sita gehiago egin ezinaren inpotentzia sentituko da ezta?

Norbere bitartekoak iristen diren lekuraino jendea laguntzearen konpentsazioa latza da. Asko han geratzen dira ordea. Egoera oso gogorak ikusi ditugu. Aurrerago agian halako beste bidaia bat egiteko aukera egon liteke, baloratu beharra dago. Hara laguntzera joan ezin izatea dirurik ez izateagatik triste da. Erakundeei laguntzea gustatzen zaie baina dirua eskatu horretarako eta ateak ixten dituzte. Zuritasuna guztizkoa da. Han ikusitakoari dagokionez, neska txiki baten begirada ez zait inoiz ahaztuko.

Hunkitu egiten nau, oso egoera gogorak ikusi baititugu. Oso gogorak. Etxeratzeko aginduagatik 8 orduz ilara egiten egon arren muga ezin pasa, handik urruntzeko desesperazioa...

Laguntzeak merezi du.

Merezi du. Esker ona ikusten da begiratuan, horrek ez du preziorik. Gu egoera berdinean egonda eskertuko genuke beraien erantzuna antzekoa izatea. Iraganean egon ginen haiek bezala eta panorama ikusita ezin jakin berriz egoera berean egongo ote garen.



ORIANTE
Institutua

2022-2023
ikasturtea
BATXILERGOA

ON-LINE /
IKASTETXEAN
martxoaren 28tik
apirilaren 8ra

-  Zientziak eta
Teknologia
-  Giza eta
Gizarte Zientziak

 Publikoa

943 89 94 94 943 89 94 92 www.oriarte.eus

Antxeta
TABERNA



egunero irekitzen dugu!

- eguneko menua (asteleheneretik-larunbatera)
- jaiegunetan: asteburuko menua
- ogitartekoak, pintxoak, razioak,
- oilasko erreak, hanburgesak, paellak
- eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03



*Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!*




San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Euskarazko film laburren zirkuito ibiltaria Usurbildik igaro zen

Ingande arratsaldean bota zuten Sutegiko pantaila handian XIX. Laburbira. Dozena bat usurbildar elkartu ziren auditorioan aurtengo bederatzik film laburrak ikusteko: *Serendipia*, *Itsasoaren mugimendua*, *Lanbroa*, *Falta zaizuna*, *Hurrengo geltokia*, *Turnoka*, *Su-bandilla* eta *Itsaso*.

Solasaldia

Film laburren amaieran, 'Lanbroa' filmeko bi protagonistarekin solasaldia egin zuten errealitatean oinarritutako filmaren xehetasunak ezagutzeko. Erlojugintza eta minbizia kasu batean istorioak uztartzen dituen film dokumentala



Laburbirako filmen ondoren solasaldia egin zen Sutegin.

ardatz hartuta, bi gaiak landu usurbildarrek eta bi protagonizituzten Sutegira hurbildutako nistek.

“Korrikako produktuak salduko ditugu”

Udarregi ikastolako LH6-ko ikasleek Korrikako txapak eta petoak salduko dituzte. Martxoaren 31tik apirilaren 7ra arte, 16:20-16:45 bitarte, Agerialdeko eraikuntzaren sarrerako aterpean.

Horrez gain, Usurbilgo kilometro bat erosi nahi dute. “Dirua lortzeko, errifa batzuk sortu ditugu eta sari bezala, otar berezi batez gain, Patri, Aialde Berri, Atxega, Txiriboga eta Artzabal jate-txeetako 2 pertsonentzako menuak zozketatuko ditugu. Lortutako dirua, AEK-ri emango diogu, bere proiektuarekin aurrera jarrai dezan”, LH6ko ikasleek adituzera eman dutenez.

Haur eta gaztetxoentzako bi hitzordu liburutegian

Apirilaren 2an gogoratuko da, Hans Christian Andersen jaioteguna eta harekin, Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko Eguna izango dugu.

Testuinguru honetan, bi hitzordu antolatu ditu Sutegi udal liburutegiak, Usurbilgo bi sortzailereren eskutik. Hemen dituzue xehetasunak.

Martxoak 29, asteartea

18:00 Ipuin-kontaketa Ixabel Agirresaroberen eskutik, 6-8 urte arteko haurrentzat.

Martxoak 30, asteazkena

18:00 Bikoteka: irakurketa-kontaketa txokoa Yolanda Arrietarekin. 4-5 urte arteko haurrentzat eta haien laguntzaileentzat. Plaza mugatuak. Izen ematea liburutegian.

Gipuzkoako Joko Garbi txapelketan, txapelkunorde

Oiartzungo Madalensoron jokatzen zen final handian martxoaren 12an. Garaipena erdiestear izan ziren Joseba eta Josu Aizpurua zubietar anaiak. 40-31 izan zen azken emaitza, Behar Zana nagusitu zen.

Zubietan hiru talde osatu dira aurtengoan, aipaturiko anaien gain, Txomin Bordagaray-Antton Arrillaga eta Unai Azpiroz eta Ander Iruretagoyena biko-



Behar Zana taldea nagusitu zen.

teek ordezkatu dute Zubietan.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

%87,27ko gaikako bilketa, inoizko emaitzarik onena

13 urte bete ditu atez ateko bilketak. 13 urteotako gaikako bilketa datu onena izan dela 2021ekoa jakinarazi du Usurbilgo Udalak. Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, “inoizko gaikako bilketa mailarik onena” lortu zen iaz; %87,27koa. 2009an martxan jarritz geroztik (%71koa zen bilketa urte hartan) koxkatxo bat gorantz egiten segi du urtero. Datuok “Usurbilek gaikako bilketarekiko duen konpromiso irmoa erakusten dute”, Udalaren esanetan.



“Datuok Usurbilek gaikako bilketarekiko duen konpromiso irmoa erakusten dute”, Udalaren esanetan.

Iaz, urte osoan 3.179 tona hondakin jaso ziren Usurbilen, 514 kilo biztanleko eta urteko. Ez dira inoizko datu altuenak izan; 2010ean 3.504 tona bildu ziren, 3.359 2011n. Ezta datu baxuenak ere; 2.919 tona jaso ziren 2014an, bi kilo gehixeago 2013an. 2018az geroztik (3.185 tona) murrizten joana zen, 2020an 3.013ra arte. Iaz koxkatxo bat gorantz egin zuen, 3.179ra arte.

Errefusa beherantz

Iazko 3.179 tonatik, 789 tona biohondakinak izan ziren, 405 errefusa, 274 ontzi arinak, 429 papera eta kartoia, 135 tokiko konposta. Gorabeherak gorabehera, hondakin zatiei erreparatzen hasiz gero, ez dago bilakaeran aipamen nabarmenik. Errefus bilketa datuei dago kienean, kale garbiketako, industria guneetako murriztu den arren, koxkatxo bat egin du gorantz etxeetan jasotakoak pandemia urteotan, 2020an eta 2021ean, 105 eta 94 tona hurrenez hurren. 2014an 109 tona bildu ziren, 2016an gutxien, 54 tona eta ordutik gorantz bidean segi du. Errefusaren batz besteko bilketa ordea beherantz bidean da 2018az geroztik; urte hartan 486 tona jaso ziren, 405 iaz.

DATUEN ALDERAKETA

“Iaz, urte osoan 3.179 tona hondakin jaso ziren Usurbilen, 514 kilo biztanleko eta urteko. Ez dira inoizko datu altuenak izan: 2010ean 3.504 tona bildu ziren; 2011n 3.359 tona”

Hazkuntza, nabarmen geldoagoa San Markon eta Gipuzkoan

Usurbilgo gaikako bilketa San Marko Mankomunitatearen eta Gipuzkoako batz besteko datuekin alderatuta, bada alde nabarmenik. Azken bi eremuotan gaikako bilketa urtez urte hazten doan arren, askoz baxuagoa da Usurbilgoarekin alderatuta. 2020an, Usurbilen %86koa zen gaikako bilketa, %52koa San Markon eta %58koa Gipuzkoan. 2009an %71koa Usurbilen, %30ekoaren bueltakoa San Markon eta Gipuzkoan. 2009tik 2020ra beraz, ia bikoiztu egin da bi eremuotan gaikako bilketa.

Baina hemen dator desberdintasun tarte nabarmenena;

2009tik 2020ra, 11 urte behar izan ditu San Marko Mankomunitateak eta Gipuzkoak zituena gaikako bilketa datuak ia bikoizteko. Usurbilek aldiz, hilabete gutxi batzuetan atez ateko bilketari esker bikoiztu baino gehiago egin zuen gaikako bilketa; 2008tik 2009ra, %30etik %71raino. 2009tik 2021erako tartean, ia hirukoiztu egin du udalerrri honek hiri hondakinak gaika bildutako ehunekoa.

Balantze ekonomikoa

Usurbilgo hiri hondakin bilketa zerbitzua ikuspuntu ekonomikotik aztertuta, Udalak plazaraturiko azken datuen arabera, sorreratik hala izan den moduan, diru-sarrerak baino gastu gehiago izan ditu atez atekoak Usurbilen. Iaz 267.000 euroko defizita izan zuen gaikako bilketak udalerrri honetan. Azken urteotako gorakada eten zen 2021ean. 2018az geroztik (232.000 euroko defizita urte hartan) gorantz bideari eutsi dio; 2019an, 294.000 euroko defizita, 338.000 eurokoa 2020an eta 267.000 eurokoa iaz.

Bilketa modu honek izan duen garapenaren adierazgarri, urtez urte bai sarrerak zein gastuek izan duten hazkuntza.

2009. urtean 489.000 euroko gastua eragin zuen hiri hondakin bilketa zerbitzua, 250.000 euroko diru-sarrerak izan zituen. Iaz, 928.000 euroko gastuak eta 662.000 euroko diru-sarrerak.

Datuetatik haratago, bilketa zerbitzuan urtez urte txertatzen joan den hobekuntzak aipatu behar. “Iaz, esaterako, poltsa berrerabilgarriak banatu zituen doan, covid19aren bilketa berezituarekin jarraitu zuen, auzokonpostaguneetako jarraipena hobetu (454 bisita egin ziren) eta industriaguneetako jarraipena ere hobetu da”, Udalaren esanetan.

‘Ondorengoek

basoak ezagutu ditzaten’ hitzaldia,

Anerrekaren eskutik Anerreka ingurumen elkar-teak martxoaren 31rako antolatu duen solasaldiko izenburua duzue. Aitziber Sarobe biologoa, HUHEZIKO irakaslea, Naturkoneko partaidea eta **Zarauzko Arkamurka Natur Elkarteko kidea arituko da hizlari lanetan.**

“Gure paisaia kulturala da ia bere osotasunean, mendez mende gizakiak eraldatutakoa. Baina, badira gizakiaren eraginik izan ez duten, edota, eragin txikia izan duten eremuak, baso-eremu naturalak. Asko gara haietara hurbiltzen garenak, barrenak hala eskatuta, senak aginduta. Ingurune kulturalak, osasuntsua izango bada, natura behar duela, basoak berreskuratzea da ondorengoei zor dieguna. Horretarako, baso-politika aldatzea ezinbestekoa da eta badago horretarako biderik”.

Ukrainako erasoak eteteko eskaera

Errusiako Federazioa Ukrainan egiten ari diren ekintza militarrek “irmotasun osoz arbuizaten” dituen udal adierazpena onartu zuten aho batez, martxoaren 17ko udalbatzarrean. “Nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria” dakarten ekintzak, “justifikaziorik gabeko eraso da; eta Europako segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen ditu”, dio aipatu testuak.

Borrokak berehala eten eta tropa errusiarrak Ukrainatik erabat erretiratzea eskatu eta ukrainar herriari “erabateko elkartasuna eta estimua adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduagatik. Sentimendu hori Usurbilen bizi den komunitate ukrainarrari ere helarazi nahi dio”.

Errusiako Federazioari galdegiten dio “nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko”. Adierazpen honen bidez iragarri duenez, “Larrialdi Humanitario honi erantzuteko laguntza bat” onartzeko da Udala. Europar Batasunari Ukrainarentzat “beharrezko laguntza finantzarioa eta humanitarioa eskaintzea” eta ahalegin handiagoa egitea eskatzen dio, “kudeaketa diplomatikoen



Borrokak berehala eten eta tropa errusiarrak Ukrainatik erabat erretiratzea eskatu du udalbatzak aho batez.

USURBILGO UDALA

“Justifikaziorik gabeko eraso da; eta Europako segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen ditu”

bidez deseskalatzea bultzatzeko eta bakeari eusteko”.

Europari, espainiar estatuari eta Eusko Jaurlaritzari, errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko ahalik eta azkarren antolatzea. Udalak bere aldetik, “agintari eskudunen esku” jarriko ditu errefuxiatuentzako bi etxebizitza.

Bederatzigarren puntua ezbaian

Erakunde adierazpen hau udal talde guztiek aho batez onartu zuten iragan asteko osoko bil-

kuran. Halere, puntu bat gehitzeko eskaera luzatu zuten EAJ-tik. Europar Batasunetik Errusiako armadaren erasoaldiari aurre egiteko laguntza bidalketari lotutako puntua zen. Adierazpenean txertatu ez zutena azkenean. Kritiko agertu zen udal gobernu taldea, Ukrainako egoeraren aurrean Europar Batasuna hartzen ari den zenbait neurriekin; arma bidalketekin esaterako. “Zibilak armatzearen aurka gauden”, adierazi zuten EHBildutik hilaren 17ko udalbatzarrean. Gainera, bederatzigarren puntu hori txertatzearen aurka agertu ziren, “mozio honen funtsaren aurka doala ulertzen dugulako”. Indarra bide diplomatikoan jarri behar dela nabarmendu zuten udal gobernu taldeak.

Udalak bi etxebizitza jarriko ditu Ukrainako errefuxiatuen esku

Iragan asteko ezohiko udalbatzarrean aho batez onarturiko udal adierazpenak dioen moduan, Udalak errefuxiatuen esku bi etxebizitza jarriko ditu. Arlo honetan errefuxiatuen etorrera kudeatzen ari diren erakunde eta eragileekin hartuemanetan direla berri eman

du Usurbilgo udalak.

Nola eta noiz lagundu

Dagoeneko zenbait ukrainar Usurbila heldu direla harreran. “Galdetzen dugu, argibideen zain gara”, berri eman zuen udal gobernu taldeak Usurbilgo alkate Agurtzane Solabe-

rrietak martxoaren 17ko osoko bilkuran. Gaineratu zuenez, “denok lagundu nahi dugu, jakin behar dugu ondo, nola eta noiz lagundu. Milaka pertsonen epe luzerako harreraz ari gara”. Ondorioz, “ondo antolatu behar da laguntza”. Gaiari jarraipena egitekotan dira.

Iruzurraren aurkako neurrien plana onartu du Udalak

Martxoaren 17ko ezohiko udalbatzarrean aho batez onartu zen, adierazpen baten bidez. “Horretarako, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar zorrotzak bere gain hartuko dituen tresna egokia ezarri nahi du, bai eta estandar horiek integritatearen, objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipioei atxikitu nahi ditu. Hala-ber toki-erakunde honek apustua egin nahi du iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako kultura bat garatu eta areagotzeko, udalarekin harremanetan dauden edo harekin parte hartzen duten eragile guztiek hautematen dutena”.

Kode etiko bat idatziko da

Jarduerok egin asmo dituzte: arriskuen analisia eta ebaluazioa, kode etiko bat idaztea; Kanal Etikoaren Protokoloa idaztea; interes-gatazkak prebenitzeko politika idaztea; oparien, otorduen eta joan-etorrien politika idaztea; prestakuntza eta kontzientziazioa iruzurraren prebenzioaren arloan, iruzurra kontrolatzeko organoa izendatzea. “Barne-kontrolako sistema bat ezarri nahi da, iruzurrezko edozein jarduera prebenitzeko, detektatzeko eta, hala badagokio, horren ondorioak zuzentzeko”.

Usurbilgo Udalak jakinarazpenetarako barnekanalen bidez atzeman daitetzkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu, “eta iruzurraren aurkako koordinazio-erakunde eta zerbitzuekin elkarlanean arituko da une oro”, udal adierazpen bidez jakinarazi dutenez.

Aurtengoan Soinurbil astea behar bezala ospatzeko aukera izan dute

Reziklantes ikuskizuna kalean egitekoak ziren martxoaren 17an, baina euria tarteko, Udarregi ikastolako instalakuntzak erabili zituzten. Hainbat haur eta heldu erakarri zituen emanaldiak. Birziklatutako materialak musika egiteko aukera ematen du, eta horixe erakutsi zuten hain zuzen ere Turukutupa konpainiako kideek.

Biharamunean 'Rockalean' ikuskizunaren txanda izan zen. Euskaraz, gazteleraz zein ingelesezko abesti ezagunak jo zituzten eta hainbat pertsona dantzari jarri zituzten Artzabalen zein herrigunean.

Ilunbe Orkestra Sinfonikoa

Ilunbe Orkestra Sinfonikoa



Jende asko batu da Soinurbil zikloaren baitan antolatutako ekitaldietan.

LARUNBATEKO EMANALDIA

"Ilunbe Orkestra Sinfonikoa emanaldi oparoa eskaini zuen Salvatore elizan"

pieza sorta oparoa eskaini zuen larunbatean Salvatore elizan. Txalo zaparradak entzun ziren kontzertuak iraun zuen

ordubete inguruko saioan.

Araiako musika banda arduratu zen Soinurbil asteburua borobiltzeaz.

Martxoak 28 astelehena, organo erakustaldia

■ Bi txanda: 18:00/19:00.

■ Salvatore elizan.

■ Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Udala.



Araiako musika banda (behean, eskubitara) arduratu zen Soinurbil asteburua borobiltzeaz.

Futbol partidak Haranen

Martxoak 26, larunbata

■ 09:30 Infantil mutilak:

-Udarregi Usurbil FT A

-Orereta Kafea FC

■ 11:00 Infantil neskak:

-Udarregi Usurbil FT A

-Goierri Gorri FK B

■ 11:00 Infantil neskak:

-Udarregi Usurbil FT B

-Zarautz KE

■ 12:15 Kadete mutilak:

-Usurbil FT B

-Sporting de Herrera

■ 15:30 Kadete mutilak:

-Usurbil FT A

-Kostkas KEC

■ 17:45 Erregional

mutilak:

-Usurbil FT

-Trintxerpe CD

Martxoak 27, igandea

■ 10:00 Kadete neskak:

-Usurbil FT

-Oartzun KE B

■ 12:00 Futbol eskola,

Alebinak 2011:

-Usurbil FT

-Lazkao KE

■ 16:00 Jubenilak:

-Usurbil FT

-Santo Tomas Lizeoa KE

Pilota partida

Usurbilgo

frontoian

Martxoak 25, ostirala

■ 18:30 Alebin 1. mailako errendimentu txapelketako partida Usurbilgo frontoian:

- Pagazpe.

(Blazquez-Illaramendi)

- Txulobi 1.

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabeteetan, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, masakak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaereta-

rako. Egurdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak eta garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. Interna moduan edo orduka lan egiteko disponibilitatea. 611272772

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduen zaintza lanetan esterna moduan aritzeko lan bila nabil. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. Harremanetarako: 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaian. Aurkitu bauduz, hona deitu: 685725681

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

Eskubaloi taldeko jubenil mutilak, Euskadiko lauko finalean

Asteburu honetan jubenil mutilen Euskadiko lauko finala jokatu da Zarauzko Aritzbatalden. Lauko final honetan Espainiako txapelketa jokatzeko bi txartel banatu dira.

Martxoak 25 ostirala

- 17:15 Usurbil-Bidasoa
- 19:00 Ereintza-Zarauz

Martxoak 26 larunbata

- 19:30 Ereintza-Bidasoa
- 17:30 Zarautz-Usurbil

Martxoak 27 igandea

- 11:30 Usurbil-Ereintza
- 13:00 Bidasoa-Zarauz

**Zorionak Maddi!**

Apirilaren 6an egingo dituzu urteak. Muxu handi bat etxekoen partez. Asko maite zaitugu!!

Heriotzak

Maria Angeles Maiztegui Antolinez

Martxoaren 8an hil zen Aginagan, 84 urterekin

**Heriotzak**

Joxe Manuel Alkorta Etxeberria

Martxoaren 14an hil zen, 74 urterekin

**Heriotzak**

Jexux Mari Errekondo Aizpurua

Martxoaren 9an hil zen, 92 urterekin

**Heriotzak**

Begoña Iribar Ikutza

Martxoaren 17an hil zen, 85 urterekin

**Heriotzak**

Maria Teresa Alkorta Lizargarate

Martxoaren 9an hil zen, 71 urterekin.

**Heriotzak**

Mertxe Aizpurua Zeberio

Martxoaren 18an hil zen, 96 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 27 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astlehena 28 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 29 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 30 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 31 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 03 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda martxo

25 ostirala

- **Sareren mobilizazioa** 20:00etan Mikel Laboa plazan. Antolatzailea: Sare.

26 larunbata

- **Kantu-jira.** 12:00 Mikel Laboa plazan.
- **Kontzertu gaua Aginagan.** 22:30ean Aginagako Eliza Zaharrea, Kaleko Urdangak eta Unidad Alavesa. Sarrerak: 10 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra elkargunea.

27 igandea

- **Ordu aldaketa.** Goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.
- **'Tipularen sehaska kanta' dokumentala** 18:00etan SuteGIN. Sarrera: 3 euro, usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzaileak: Sare eta Usurbilgo Udala.

'Tipularen sehaska kanta' filma SuteGIN eskainiko dute igandean

Tipularen sehaska kanta filmak, Lander Garrok zuzendutako dokumentalak, espetxean gaixotasunak suposatzen duen samina azalerazi nahi du. Igande honetan ikusgai izango da SuteGIN. 18:00etan hasiko da proiektzioa.

Diagnostiko bat egiteko edo tratamendu bat izateko medikuarenera joatea gauza arrunta da kanpoko munduan. Baina preso den ororentzat bide oso zaila edo ezinezkoa da. Lander Garro, zuzendaria, kartzelan gaixo egotearen esperientzia bizi izan dutenengana joango da, zer ondorio duen hobeki ulertzeko.

Usurbilgo Sarek antolatu du igande honetako proiektzioa.



Sarrera 3 eurotan eskura daiteke, usurbilkultura.eus plataforman.

Martxoak 27 igandea

- 18:00etan, SuteGIN.
- Lander Garro zuzendaria emanaldian bertan izango da.
- Sarrera: 3 euro, usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzaileak: Sare eta Udala.

Kantu Taldea, plazara

2020ko otsailaren amaieran eskaini zuten azken emanaldia. Larunbat honetan, martxoaren 26an, Mikel Laboa plazatik abiatuko dira eguerdiko 12:00etan. Kantu-liburuxka eramateaz ez ahazteko eskatu dute. Entsegueri ere ekin diote berri; astelehenera biltzen hasiak dira 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Kontzertua Aginagan

Martxoak 26, larunbata:

Kaleko Urdangak eta Unidad Alavesa

- 22:30 Kaleko Urdangak eta Unidad Alavesa kontzertuan.
 - Sarrerak: 10 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra elkargunea.

Datozenak

Soinurbileko azken saioa: organo erakustaldia

Martxoak 28, astelehena

- Bi txanda: 18:00/19:00.
- Salvatore elizan.
- Antolatzaileak: Zumarte, Udala.
- Laguntzaileak: Parrokia, Aldundia.

10. Dantza Egunerako prestatzen

Apirilaren 9an Dantza Eguna ospatuko da eta pare bat ohar helarazi dizkiote NOAUA!ri Orbediko kideek.

Herri bazkarirako txartelak salgai

Batetik, herri bazkari baten bueltan urteotako kide guztiak bildu nahi dituzte. Txartelak Txiribogan eta Artzabalen izango dira salgai; 15 eurotan bazkaria eta 25 eurotan kamiseta eta guzti. Bazkalosterako, tranpaldok irekia antolatu dute. "Aurrez etxean koreografia bat prestatu eta gainerakoei emanaldia eskaini nahi diotenei horretarako aukera izango dute. Parte hartzeko izena usurbildantza@gmail.com helbidean eman beharra dago".

Dantzarien Topaketa, apirilaren 30ean

10. Dantza Egunarekin batera, bosgarren Dantzarien Topaketa antolatu dute apirilaren 30erako eta Dantzari Txikien hirugarren topaketa maiatzaren 7rako.



URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.truinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.




Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

osasan neurri guztiekin

Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea



SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2022

Apirilak 1, OSTIRALA

**GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN
LAGUN.**

Egoitz Zapiain

**SAGARDOA EGURREZKO ONTZIETAN. SAGARDO-
AREN HISTORIA BAT, ZER IKASTEKO?.**

Jakoba Errekondo

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenean

SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman eta
alkartasuna.eus web orrian.

